



Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea
Gatikako alkatea
Gatikako Udala
Garai auzoa, 1
48110 Gatika
BIZKAIA

Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2
48013 Bilbao

tel.: 94 656 30 00
fax: 94 656 32 59
www.eitb.eus

Bilbon, 2018ko apirilak 18

Aikate anderea:

Gutun honen bitartez iragan apirilaren 10ean bidali zenigun idatzia EITBko zerbitzu juridikoek aztertu dutela jakinarazten dizugu, eskatutako erantzun-/zuzenketa-eskubidea ba ote duzuen ezagutzeko.

Zure idatzian gure informazio zerbitzuetan eskainitako informazio baten inguruko zure ikuspuntua azaltzen duzue, Arantxa Tapia sailburuak egindako adierazpenekin ados ez zaudetela agertuz.

Emandako informazio guztiz zuzena ez dela eta Udalak erabakitakoarekin bat egiten ez duela azaltzen duzue, eta, hortaz, bai ETBk bai sailburuak informazio «zuzena» emateko eskatzen duzue.

Eskaera aztertu ostean, zerbitzu juridikoek uste dute idatziak ez duela bere horretan inolako zuzenketa-eskubiderik sortzen.

Hala ere, idatzia albistegietako zuzendaritzari helarazi diogu ezagutu dezan.

Amaitzeko, nire esker ona adierazi nahi dizut agertutako kezkatatik eta EITBko informazio zerbitzuak jarraitzeagatik.

Adeitasunez,



Andoni Aranburu Iturbe
EITBko Estrategia eta Komunikazio zuzendaria

